

Jesus BIZI DA!

Prest izango ditugu...

Ospakizuna egingo den otoizlekua, kapera edo eliza girotuta. Erabiliko ditugun askotariko elementuak: Emauseko kartela (lokala girotzeko), pazko-zuzia, kandelak (partaide bakoitzarentzat bana), ogia eta ardo gozoa banatzeko, edalontziak edateko...

Hasiera...

Ospatzaileak ongi etorria egingo die partaideei (heldu eta haur) eta zer egingo dugun azalduko du.

Isiltasuna egiteko eta barruko entzutea ahalbideratzeko, erlaxaziorako ariketa batzuk egingo ditugu: jarrera erosoak aurkitu; gure gorputz-atalez jabetu; buruko zaratak uxatu; arnasketa pausatua egin... Musika gozoa jarrita edukitzea lagungarri izan daiteke.

Barrutik nahiz kanpotik isiltasuna eginik, heldu eta txiki elkarrekin, ondorengo otoitza egingo dugu. Jainkoaren aurrean gaudela aitortuko dugu... Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean, amen. Aho batez esango dugu:

*Kaixo Jesus, hemen gaude berriz ere.
Aste Santuko oporrak amaitu berri ditugu.
Egun horietan, Elizak zure heriotza eta berpizkundea gogoratu ditu.*

Horrexegatik pizten dugu kandela hau, zure argi eta indarra lagun izan ditzagun orain eta beti.

*Jesus, pazientzia hartu, batzuetan ez dugu-eta ondo ulertzen.
Emauseko ikasleei gertatu zitzaizen bezala,
geuk ere, ondoan izan arren, ez zaitugu ezagutzen.*

Elizak, fedean ahaide nagusi direnek, BIZI ZARELA diote, heriotza, zure heriotza, ez dela azkena. Haiengan fidatzen gara.

Jesus, lagun iezaguzu Zu gertukoengan aitortzen eta eman iezaguzu indarra gutariko bakoitza argi izan gaitezen besteentzat.

Bihotzez eskatzen dizugu. Amen.

(Kandela amatatu)



Giro honi utsiz... Emauseko ikasleen kontaketa (Lukas 24, 13-34) entzungo dugu. Kontaketaren irudiak aurkituko ditugu ondorengo esteka honetan:
<https://www.youtube.com/watch?v=U6dodjVpfpq>

Haur eta nagusiek, kontaketa ikusi, entzun egingo dute.

«Egun hartan bertan, ikasleetako bi Emaus izeneko herrixka batera zihoazen, Jerusalemetik hamaika kilometrora. Gertakari guztiotaz mintzo ziren elkarrekin. Eta, hizketan eta eztabaidan ari zirela, Jesus bera ondoratu zitzaien eta beraiekin joan zen. Baina ikasleek begiak itsu zituzten eta ez zuten ezagutu. Jesusek esan zien: "Zeri buruz zoazte bidean elkarrekin hizketan?". Haiek gelditu egin ziren, aurpegia ilun, eta beraietako batek, Kleofas zeritzanak, honela erantzun zion: "Zeu izango zara egun hauetan Jerusalemen gertatu dena jakin ez duen kanpotar bakarra!". "Zer gertatu da, bada?" –esan zien hark-. Haiek erantzun zioten: "Jesus Nazaretarrarena; profeta handia zen hitzez eta egitez Jainkoaren eta herri osoaren begitan; baina gure apaizburu eta agintariak heriotzara kondenatu dute eta gurutziltzatu. Guk uste genuen berak askatuko zuela Israel; baina badira hiru egun hori gertatu dela. Egia da gure arteko emakume batzuek harriturik utzi gaituztela: goizean goiz joan dira hilobira eta ez omen dute gorpua aurkitu; gainera, Jesus bizi dela esan dieten aingeru batzuk agertu zaizkiela esanez etorri zaizkigu. Gutako batzuk ere izan dira hilobian eta emakumeek esan bezala aurkitu dute guztia; baina bera ez dute ikusi". Orduan, Jesusek esan zien: "Bai buru gutxikoak zaretela, bai motelak profetek esana sinesteko. Ez ote zuen Mesiasek hori guztia sufritu behar bere aintzara iristeko?". Eta Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, Liburu Santuek berari buruz zioten guztia azaldu zien. Zihoazen herrixkara hurbildu zirenean, aurrera jarraitzeko keinua egin zuen Jesusek. Baina haiek arren eta arren eskatu zioten: "Geldi zaitez gurekin, berandu baita eta iluna gainean dugu". Eta herrian sartu zen haiekin gelditzeko. Ondoren, elkarrekin mahaian jarri ziren, eta Jesusek, ogia harturik, bedeinkazioa esan, zatitu eta eman egin zien. Orduan, begiak ireki zitzaizkien eta ezagutu egin zuten, baina Jesus desagertu egin zitzaien begi aurretik. Haiek elkarri esan zioten: "Ez al genuen barrua sutan, bidean Liburu Santuak azalduz mintzo zitzaigunean?". Berehala jaiki eta Jerusalemera itzuli ziren; eta Hamaikak eta hauen lagunak bildurik aurkitu zituzten, honela ziotela: "Egia da" Piztu da Jauna eta Simoni agertu zaio"».

Lukas 24, 13-34

Minutu batzuek isilunea egin eta, ondoren, elkarriketan jardungo dugu, alde batetik, gurasoekin eta, bestetik, umeekin. Ikasleen beraien galderak eguneratu eta "geure erara" erantzungo diegu, heldu eta txikiok.

- Zertaz mintzo ziren bidean zihoazela?



**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

Fede-zabalkunde eta
Katekesirako Ordezkaritza
Delegación de
Anuncio y Catequesis



Pazko aldia
Jesusen Pazkoa ospatzen dihardugu

- Zer dela-eta zeuden atsekabeturik, aurpegia ilun? Atsekabe horren arrazoiez jabetzen lagundu: adiskidea hil zitzaien, baina, horrezaz gainera, Jesusen heriotzarekin, gizon eta emakume guztientzako mundu eta bizitza hobearen proposamenak porrot egin zuen.

Pazko-zuzia piztuko dugu.

Eta solasean jarraituko dugu..., orain, kontakizunean azaltzen diren ikasleen jarreraren inguruan. Ikasleak aukera-aukeran jarri zitzaizkion Jesusi:

- Ezezagun bat hurbiltzen zaie... onartu eta entzun egiten dute.
- Beraiekin geratzeko gonbidapena egiten diote (berandu da). Abegi ona erakusten dute.
- Eta daukatena, hau da ogia eta ardoa, erdibanatu egiten dute.

Eta gu, aukera-aukeran jartzen ote gara?

Beraiekin elkarrizketan jarduteaz gainera, Jesusek keinu bat egin zuen.

«Gero, ogia hartu zuen eta, esker oneko otoitza egin ondoren, zatitu eta ikasleei eman zien, esanez: "Hau nire gorputza da, zuentzat ematen dena. Egizue hau nire oroigarri"» (Lk 22, 19).

Egiten duen keinu horretan ezagutzen dute Jesus... begiak irekitzen zaizkie eta Jesus ezagutzen dute.

Kandelak piztuko ditugu pazko-zuzitik.

Ogi eta ardoaren keinuak islatzen digu Jesusen bizitza nolakoa izan zen. On eginez bizi izan zen, ona zen (ogia bezalakoa) eta jendearen zoriona bilatu zuen (poztasuna ematen du, ardoaren antzera). Eta gutariko bakoitzak horrelakoxe bizimodua izan dezagula nahi du Jesusek.

Horixe nahi dugu geuk ere, baina Jainkoaren Espirituaren laguntasuna eta indarra behar ditugu eta horixe eskatzen diogu:

- Aita Jainkoa: Jesus berpiztu duzula sinesten dugu eta horregatik eskatzen dizugu... handitu gure konfiantza, gure fedea... Egin dezagun otoitz... Aita Jainkoa, handitu gure fedea.
- Aita Jainkoa, Jesus berpiztu duzuna, bere antzeko izan gaitzela, Jesusen begirada izan eta Jesusek bezala jardun dezagula... Egin dezagun otoitz... Aita Jainkoa, handitu gure fedea.
- Aita Jainkoa, Jesus berpiztu duzuna, eman gure inguruko sufrimendu eta beharra ikusten lagunduko diguten begiak eta begirada... Egin dezagun otoitz... Aita Jainkoa, handitu gure fedea.



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

Fede-zabalkunde eta
Katekesirako Ordezkaritza
Delegación de
Anuncio y Catequesis



Pazko aldia
Jesusen Pazkoa ospatzen dihardugu

- Aita Jainkoa, Jesus berpiztu duzuna, eman denei laguntzeko bihotza eta eskuak; ez dezagula aurrera egin, gure inguruan oinazetan, gaizki pasatzen ari den norbait aurkitzean... Egin dezagun otoitz... Aita Jainkoa, handitu gure fedea.
- Aita Jainkoa, beste era batera bizitzeko esaten diguzu; Jesus eredutzat hartuz, zorioneko izateko eta besteak zorioneko egiteko dei egiten diguzu. Eman zure indarra... eman zure Espiritua hori lortzeko... Egin dezagun otoitz... Aita Jainkoa, handitu gure fedea.

Aita Jainkoa, bihotz-bihotzez eskatzen dizugu.
Amen.

Amaitzeko, Unai Quirosen 'Aleluia' abestuko dugu ondorengo estekatik hartuta:
<https://www.youtube.com/watch?v=nwVqEDRmPGc>



**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

Fede-zabalkunde eta
Katekesirako Ordezkaritza
Delegación de
Anuncio y Catequesis

esnatu